

## HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekiko izango duen harreman mota automatizatu izango da, hori dela eta, webgune bat sortuko dugu eta bertan bezeroek gure produktua ikusi eta erosi ahal izateaz gain, gurekin kontaktuan jarri ahal izango dira.

Enpresa-bezeroen arteko harreman motari dagokionez, automatizatutako zerbitzua egokiena izango litzatekela deritzogu. Esan bezala, bezeroek webgunean sartuz gure produktuaren berri izango dute, baita nahiaina erosteko aukera.

Gure enpresaren motibazio/arrazoiak hainbat dira: konstumitzaile berriak lortzea, jada daudenak mantentzea eta salmenta kopurua egunero haztea. Lehenengo arrazoiari dagokionez, kontsumitzaile berriak edukitzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, gure enpresaren hazkunderako; hasieratik bezero kopuru jakin bat bermatzea ezinbestekoa izango zaigu. Bigarren motibazioaren harira, kontsumitzaile berdinak mantentzea, faktore oso garrantzitsua izango zaigu, horrela gure enpresak galerak izatea eragotziko dugu. Denborarekin, enpresaren hazkundera ziurtatzeko produktuan berritasunak zein konpocketak egin beharko ditugula argi dugu; horrekin guztiarekin, bezero berriak erakarri ahal izango ditugunez salmenta kopurua haztea bermatuko dugu.